

I. ERANSKINA: OCW2019 KURTSOEN EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

Proposamenen kalitatearen ebaluazioa hiru faseetan gauzatuko da. Eranskinean ezarritako irizpideak jarraituz:

- A) **eCampusek** (aurrerantzean eC) irizpide formalak betetzen diren aztertuko du, eta beharrezkoa izanez gero, irakasle taldeari hobekuntzak proposatuko dizkio.
- B) eCampusen oniritzia jaso ondoren, **Sailari** proposamenari dagokion *unibertsitate maila eta zehaztasun zientifikoa duen txostena* eskatuko zaio. Ebaluaketaren azken fasera igaro aurretik, kurtsoaren haserako proposamenari eta lortutako azken emaitzari oniritzia eman beharko dio.
- C) Azkenik, **Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeak** (aurrerantzean IUEB) parekoen ebaluaketa bidez azken proposamena aztertuko du, aurrerago jasotzen diren irizpideak kontutan izanik.

IUEBk proposamenaren argitalpenari buruz ebatziko du. Irakasle taldeari hobekuntzak proposatu ahal izango dizkio, argitalpena ukatu unibertsitate mailako kurtso edo edukiak berezkoak dituen ezaugarriak ez betetzeagatik.

Ebaluaketa ondoko alderdi orokorrak jarraituz gauzatuko da:

1. Kurtsoaren Irakaskuntza Gida.

- "UPV/EHUko OCW kurtsoetako Egileentzako Gidan" jasotako irizpide formalak betetzen ditu (eC).
- Ikastaroa eta jarduerak egoki deskribatzen dira (IUEB).

2. Luzera, koherentzia eta homogeneotasuna.

- Irakaskuntza Gidan eta "UPV/EHUko OCW kurtsoetako Egileentzako Gidan" adierazitakoarekin bat dator (eC, IUEB).
- Edukiak elkarrekin lotura dute eta egitura eta antolakuntza aldetik koherenteak dira (IUEB).
- Ikasteko materialen, praktiken eta beste baliabideen artean oreka (IUEB).

3. Ikasteko materialak, gomendatutako irakurgaiak eta beste baliabideak.

- Ikasteko materialak norberarenak dira eta Irakaskuntza Gidan zehaztutakoarekin bat datoz (eC).
- Material hauek, testu edo bideo formatuan, sakondu edo lortu nahi den ikasketa helbururi buruzko azalpentxo bat izan beharko dute. (eC)
- Kurtsoak behar adina eduki propio ditu eta hauek esanguratsuak dira (IUEB).
- Bestelako baliabideek norbere materialak indartu eta edukietan sakontzeko balioko dute (IUEB).

4. Praktikak, ariketak eta ekintzak. Autoebaluazio prozedurak.

- Proposatutako jarduerak Irakaskuntza Gidan azaldutakoarekin bat datoz eta emaitzak ere eskuragarri dituzte, ikasketa autonomia errazteko asmoz (eC).
- Kurtsoak gutxienez test bat edo autoebaluazio proba bat izango du, eta emaitza edo berau lortzeko errubrika gehituko dira (eC).
- Praktikek, ariketek, ekintzek eta autoebaluazio probek kurtsoko Irakaskuntza Gidan adierazitako konpetentziak garatzea errazten dute (IUEB).

5. Materialen formatua eta hizkuntza erabilera.

- Kurtsoak "UPV/EHUko OCW kurtsoetako Egileentzako Gidan" azaltzen diren gomendioak eta deialdian adierazitako iragarritasun irizpideak jarraitzen ditu (eC).
- Testuak argiak eta zehatzak dira, azalpenei balioa emanez eta autoikaskuntza erraztuz (IUEB).

6. Bibliografiko eta informazio iturriei aipua.

- Irakasle taldearenak ez diren eduki eta baliabideak erreferentziatuta daude (eC).
- Aipuen formatua "UPV/EHUko OCW kurtsoetako Egileentzako Gidan" adierazitako gomendioetara egokitzen da (eC).
- Bibliografi eta informazio iturriak nahikoak, egokiak eta eguneratuak dira (IUEB).

7. Baliabideen jabetza intelektual.

- Erabilitako materialek eta baliabideek egungo jabetza intelektualaren araudia errespetatzen dute (eC).